

A | T | M | O | S

AGUR LURRUNA

GURE IDEIA

COVID-19ak gure gizarte eta bizimoduan hainbat aldaketak eragin ditu, eta honekin batera behar berriak sortu dira. Hauek arazo bat suposatzen dute, baina baita ere negozioetarako aukera handi bat da. Horri esker, ideia bat izan dugu; gizartearen zati handi batek, betaurrekodunek, (Espainia mailan populazioaren %59,40ak eta Euskadi mailan populazioaren %55,46ak) duen arazo berri hau konpontzeko. Arazo hau musukoaren erabileraren ondorioz ematen da, izan ere, betaurrekoen kristalak lurrundu egiten dira eta nahiko deserosoa da. Beraz, ikusteko arazoak dituen jendeari eta udaran eguzkitako betaurrekoak erabiltzen dituen jendeari gauzak errazteko, produktu berezi bat sortu dugu, badirudielako musukoaren erabilera hainbat urteetan beharrezkoa izango dela.

Gure ideia, betaurrekoei eransten den nolabaiteko lente antilurrun itsaskor bat da. Lente honek, itsasten den kristalean, antilurrun efektu bat eginez funtzionatzen du; honela musukoa erabiltzerakoan ez dira arazoak izango.



ZERGATIK DU BALIOA GURE PRODUKTUAK?

Betaurrekoen lenteak lurruntzea ekiditzeko hainbat produktu daude merkatuan; lainoaren aurkako likidoa besteak beste. Esperientziagatik badakigu hauek ez direla oso eranginkorrak, izan ere, minutu batzuk igaro ondoren, hauen efektua desagertu egiten da eta betaurrekoak berriro ere lurruntzen dira. Horregatik, beste soluzio mota bat bilatzea pentsatu dugu. Gure produktuak izaera ezberdina du eta horrek ematen dio balioa merkatuan dauden beste konponbideen aurrean. “Spray” bat izan ordez, betaurrekoen kristalera (leiarerra) itsasten den materiala da. 5 minuturo betaurrekoak kentzen eta “spray”-a botatzen egon ordez, iraupen eta erosotasun gehiago eskaintzen. Hilabete bateko itsaskorrak eta hiruhilabeteke itsaskorrak sortu ditugu. Formatu berri honi esker, bezeroak iraupen, prezio eta material desberdinak dituzten bi produktuen artean hautatzeko aukera edukiko du. Gainera, paketatetan saltzea erabaki dugu erosotasun gehiago ematen diolako bezeroari.

	Hiruhilabetekeoa	Hilabetekeoa
Materiala	PET (mugikorren protektoreetan erabilitakoa)	Gel (Silikona modukoa)
Iraupena	90 egun inguru	Iraupen mugatua du, hilabete baten inguru
Kantitatea	3 pare	12 pare
Prezioa	4,65 euro	3,60 euro